

KOMUNIKAZIOAK ETA POSTER DIGITALAK AURKEZTEKO ARAUAK

BALDINTZAK

- **Originalak** izan behar dira.
- **Egileak erizainak** edo **Erizaintzako ikasleak** izan beharko dira.
- Egileak **sei** izango dira gehienez.
- **Ezinbestekoa da hizlariak Jardunaldietan izena ematea**; horretaz gain, **lehen sinatzailea izango da**.
- Gaia Jardunaldi **hauen arlo tematikora** zuzenduta daiteke **edo librea izan, baina erizainaren lanbidearekin lotuta**.
- Aurkezpenaren hizkuntza **gaztelania** edo **euskara** izan daiteke.
- Komunikazioa aurkeztu ahal izateko, beharrezkoa izango da aldeztatik laburpen bat aurkeztea, horretarako egongo den epearen barruan.

AHOZKO KOMUNIKAZIOEN EDO POSTERREN LABURPENAK BIDALTZEA ETA EPEAK

Laburpenak bidaltzeko azken eguna: **2019ko urtarrilaren 25a**.

Laburpenak Vitoria-Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskolako posta elektronikoko helbidera **bidali beharko** dituzue, GAIA zehaztuz: XXX. Jardunaldi Zientifikoaren laburpena bidaltzea.

Batzorde Zientifikoak lanak onartu edo baztertu diren jakinaraziko du **2019ko otsailaren 1etik** aurrera, eta baita Jardunaldi Zientifikoetan aurkezpena egiteko eguna eta ordua, egileak egileek emandako e-maileko helbidearen bidez.


Onarpena jaso ondoren, egileek **aurkezpena** bidaliko dute EUEren posta elektronikora, **2019ko otsailaren 11** baino lehen.

Laburpenen edukia:

- Ahozko komunikazio edo poster digitalen laburpenak, gehienez ere, 300 hitz izango ditu (bibliografia kontuan hartu gabe).
- **Word** formatua eta **arial 10** letra-mota erabili behar da.
- Egitura honakoa izan behar da: Izenburua, egile guztien izenak eta abizenak osorik (inizialak ez), lantokia- edo ikastetxea, harremanetarako telefonoa eta egile baten posta elektronikoko helbidea eta aurkezteko erabili behar duzuen hizkuntza. Horretaz gain, aurkezpenerako behar izango diren ikus-entzunezko tresnak ere aipatu behar dira.
- Laburpenak horrela egituratu da:
 - **1. Aukera:** Sarrera, helburuak, materiala eta metodoak, emaitzak, ondorioak eta bibliografia.
 - **2. Aukera:** Sarrera, helburuak, garapena, ondorioak eta bibliografia.
 - **3. Aukera:** Mugikortasunaren esperientziaren aurkezpena: Sarrera, helburuak, garapena, ondorioak.
- Bibliografia Vancouver arauen arabera antolatu behar da.

Poster digitalak egiteko jarraibideak:

- Aurkezpena Power Point (PPT) formatuan egingo da -JPEG artxibo bezala gordeta- eta lehen aipatutako posta elektronikoko helbidera bidali beharko da, **2019ko otsailaren 8a baino lehen**.
- Posterraren aurkezpenak honako ezaugarri hauek izan beharko ditu halaberrez:
 - * *Neurria konfiguratzeko*: posterra sortzen hasi aurretik, prozesu honi jarraitu behar zaio neurria hauze izan dadin: 57,25 x 101,81 cm.
 - ✓ PowerPoint hasi
 - ✓ "Diseinua" sakatu (Office 2007 erabiliz gero) edo "Fitxategia" (Office 2003 bada)
 - ✓ Sakatu "Prestatu orrialdea"
 - ✓ Parametro hauek hautatu:
 - Diapositiben neurria: "Pertsonalizatua"
 - Zabalera: 57,27; Altuera: 101,81
 - Diapositibak: "Bertikala"
 - Oharrak, dokumentuak eta eskema: "Bertikala"
 - Sakatu "Onartu"
 - ✓ Hasi posterra egiten diapositiba bakarrean
 - * *Gomendioak*:
 - Letra-tamaina: gomendioa da 18 puntutik gorakoa izatea (neurri txikiagokoak ez dira erraz irakurtzen azalpen-pantailetan).
 - Letra-tipoa: gomendioa da Arial, Tahoma edo Verdana erabiltzea.
 - Atzealdea: komeni da erabiltzea atzealde lisoa eta kontrastea sortarazten duten koloreak.
 - Ziurtatu txertatutako grafiko/irudiak kalitate onekoak direla.
 - * *Gorde PowerPoint-a eta JPEG bihurtu bidaltzeko eta proiektatzeko*:
 - * Posterra amaitzean, gorde "Fitxategia" menuan, aurkezpen normal bezala (.ppt edo .pptx, Office 2007 erabiliz gero).
 - * PowerPoint bezala gordeta izan ondoren, JPEG bihurtu urrats hauek kontuan hartuta:
 - Hautatu "Gorde honela" eta "Gorde honela" laukitxoan hautatu "JPEG artxiboak trukatzeko formatua". Aukeratu izena eta non gorde.
 - PowerPoint-ek hauze galdetuko dizu: "diapositiba guztiak esportatu nahi dituzu ala uneko diapositiba bakarrik?" Sakatu "Uneko diapositiba bakarrik".
 - Zure posterra zabaldu, JPEG formatuan, eta egiaztatu guztia irakurgarria ote den; hala ez bada, letra-tamaina handitu jatorrizko ppt-n eta berriro ere JPEG bihurtzeko prozesuari ekin.
 - * Badago bidaltzeko prest.



JARDUNALDIETAN ZEHAR

- Ahozko komunikazioetarako gehienez **10 minutu** izango dituzue; beraz, **gehienez hamar diapositiba** prestatzea gomendatzen dizuegu.
- Komunikazio eta poster digital guztien azalpena amaitzean, galderak egiteko txanda irekiko da.

SARIA

Batzorde Zientifikoak bi kategoria ezarri ditu:

Sari bat EUEren ikasleek aurkeztutako ahozko komunikazio edo poster digital onenari eta, bigarrena, **erizaintzako profesionalak aurkeztutako** ahozko komunikazio edo poster digital onenari.



KOMUNIKAZIO ETA POSTER DIGITALEN LABURPENAREN INPRIMAKIA

Vitoria-Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskolako XXX. Jardunaldi Zientifikoak "Sexualitatea. Erizainaren Ikuspegia". 2019ko otsailaren 21 eta 22a.

IZENBURUA:

EGILEAK:

.....

.....

Egileen ikastetxea edo lantokia

.....

Azalpenean erabiliko den hizkuntza

Aurkezteko modua: Ahozko komunikazioa Poster Digitala

Aurkezpenerako behar diren ikus-entzunezko tresnak:

Erreferentziazko egilea:

Telefonoa E-maila:

LABURPENA

